



EBAZPENA, 2024KO APIRILAREN 17KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HORREN BIDEZ EBAZTEN DA 2024-2025 IKASTURTERAKO OSASUN ARRAZOIAK DIRELA ETA, ZERBITZU-EGINKIZUNAK ETA KLASE-ORDUEN 1/3KO MURRIZKETEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK ARGITARATZEA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2024KO OTSAILAREN 9KO EBAZPENAREN BIDEZ ARAUTUTAKOA.

185/2010 Dekretua, uztailearen 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen akordioa onartzeko denak, bere 12. Artikuluan ondorengoa dio:

«Irakaskuntzako arrazoiak edo norbere osasun-arazo larriak direla-eta, karrerako funtzionarioek berez dagokiena ez den beste ikastetxe batean lan egin ahal izango dute.

Salbuespen gisa, zerbitzu-eginkizunak eman ahal izango dira odol-ahaidetasuneko lehen mailako senideren batek gaixotasun larria baldin badu, betiere elkarrekin bizi badira eta interesdunaren arreta pertsonala beharrezkoa dela egiaztatzen bada.

Era berean, salbuespen gisa, eta gehienez ere bi urtez, zerbitzu-eginkizunak eman ahal izango zaizkie gaixotasun larria duten pertsonari, betiere hori bidezko mediku-txostenaren bidez egiaztatzen bada. Eginkizun horiek izan daitezke zuzenean eskolak ez emateko.

Zerbitzu-eginkizunak ikasturte osorako izango dira eta interesdunak ezingo die horiei uko egin. Urtero, ikasturtean ikasturteko zerbitzu-eginkizunen deialdiak egingo dira Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez ».

71/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, bere 10 k) artikuluan, Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren eskumena zerbitzu-eginkizunak ematea dela ezartzen da.

2024ko otsailaren 9ko Ebazpenaren bidez, osasun arrazoi larriengatik eta senideen gaixotasun larriengatik 2024-2025 ikasturterako deialdia argitaratu zen.

2024ko otsailaren 9ko Ebazpenaren zazpigarren atalean ezartzen denaren arabera, deialdi honetan exijitzen diren baldintzak betetzen dituzten eta garaiz eta forman aurkeztu diren eskabideak Balorazio-batzordeak baloratuko ditu.

Era berean, ebazpenaren zortzigarren atalak esandakoari jarraiki, Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdiaren behin-behineko zerrendak argitaratuko ditu dagokion Balorazio-batzordeak egindako ebazpen-proposamena oinarri hartuta. Behin-behineko zerrenden aurka, interesdunek aurkeztu ahal izango dituzte alegazioak 10 egun balioduneko epean, zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 106. artikuluan arautu du zerbitzu-eginkizuna, eta lanpostuak betetzeko aparteko era bat bezala taxutu.

Horiek horrela, behin eskaerak aztertuta eta Balorazio-batzordeak egindako proposamena ikusita, otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak ezartzen duen eskumenaz baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehena.- Argitaratzea Hezkuntza Saileko langileak kudeatzeko zuzendariaren Ebazpena, 2024-2025 ikasturterako zerbitzu-eginkizunen eta klase-orduaren 1/3ko murrizketen behin-behineko zerrendak argitaratzen dituena. Deialdia 2024ko otsailaren 9ko Ebazpenaren bitartez egin zen.

Bigarrena.- Argitaratzea ebazpen honen I. eranskina. Eranskin horretan 2024-2025 ikasturterako behin-behinean baimendutako zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduaren 1/3ko murrizketak ageri dira.

Hirugarrena.- Argitaratzea ebazpen honen II. eranskina. Eranskin horretan behin-behinean ez onartutako eskabideak eta ukatzeko arrazoiak ageri dira.

Laugarrena.- Ebazpen honek soilik eskaera onartu den ala ez eta zergatia adierazten du. *Hezigunetik* ikusi ahal izango da zergatik ukatu den eskabidea eta bertatik bete ahal izango da erreklamazioa.

Bosgarrena.- Emandako zerbitzu-eginkizunak, oro har, hutsik dauden lanpostuak betetzeko ematen dira, eta interesdunek ikasturte hasierako esleipenera joan behar dute, dagokien txandan, lanpostua aukeratuz, hurrengo kasu hauetan izan ezik: Osasun-arrazoi larriengatik edo, salbuespen gisa, behar adina egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik zuzenean eskolak ez emateko zerbitzu-eginkizunak baimentzea eta eskatzaileak bere behin betiko destinoko ikastetxean eskatzen duenean zerbitzu-eginkizuna.

Beraz, 1 eta 4 modalitateetarako emandako zerbitzu-eginkizunek ez dute ziurtatzen lanpostu zehatz bat esleitzea, baizik eta ikasturte hasierako esleipenean parte hartzeko aukera ematea.



Hori guztia, deialdiaren zortzigarren atalean ezarritakoa eragotzi gabe.

Seigarrena.- Argitarapena <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus> webgunean egingo da.

ERREKURTSOAK

Deialdi hau argitaratu zuen 2024ko otsailaren 9ko Ebazpenaren 8.3 paragrafoan xedatutakoaren arabera, I. eta II. eranskinetan argitaratutako behin-behineko zerrenden aurka interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte 10 eguneko epean, Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Behin-behineko ebazpen honen aurkako alegazioak *Hezigunea* ingurunean horretarako prestatutako **aplikazioaren bidez** egingo dira. Alegazio horiek egiteko akatsengatik edo akats materialengatik bakarrik egin ahal izango dira, eta **ez** edukizko kontuengatik.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 17a.

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA